

BATXILERGOA

IRAKURKETA GIDA

EIE Euskal Idazleen Elkartea



Oharra: hemen topatuko dituzue idazleek egindako zenbait gomendio.
Halere, gida honetan agertzen ez den libururik landu nahi baduzu, “Saioak eskatu” atalean aukeragarri izango dituzu beste asko.



**KAMISOI ZURI
zetazkoa**
ALAINE AGIRRE

SEXU ABUSUA


Hamaika urte zituen uda hartan, gurasoek ingele-sa ikasteko kanpamentura bidali zutenean. Nagusia izan nahi zuelako erosi zion amak lehenengo sujetadorea, baina haurra zen oraindik, ez zuen ezagutzen helduen mundua, eta are gutxiago gizon hark jokarazi nahi zion jokoaren arauak.



**ZORIONTSUAK IZATEA
AUKERATU GENUEN**
MIKEL AYLLON

ZORIONTASUNA

6 ipuin hauetan, hainbat pertsonaia aurkituko ditugu zoriontsu izateko ahaleginean, zoriontasuna moztorra bihurtu digun gure gizartean. Hurbileko kontakizunak, gaurkotasun handiko liburu irakurterraz batean.



ARROZ UREZ
MIKEL ANTZA

**HERRI BATEN
ESNATzea**


Burgosko Auziaren 50. urteurrena aitzakia hartuta, egileak bere biografian oinarrituz Euskal Herriaren azken 60 urteetako kronika literarioa egiten du.



ATZERRI
MIKEL ANTZA

**LITERATURA
ATZERRIA
KARTZELA**


Narratzaileak kartzelako zigor moduluan, idazle izateari nola utzi zion deskubrituko digu, bizitzari buruzko bere ikuspegia azalduz.



EZER EZ DA DIRUDIENA
MARIBEL AIERTZA

**ARTEA
HARREMANAK
BIZITZA**

8 narrazioko bilduma kolore anitzekoa: Van Gogh-en belarri ospetsua MOMAko erakusketan; grafitigile talde batekin endredatutako neska abenturak eta desbenturak; Jaiotzen erakusketan bi tarantulek sortutako deskalabrua...



IRULEAK
GARAIZ ALBIZUA

**KOMIKIA
IDENTIDADEA
HISTORIAKO
EMAKUMEAK**

Hiru dira iruleak: Kloto, Lakesis eta Atropos. Bel-durgarriak, boteretsuak eta independenteak. Gizakien patuaren jabe eta gidari... baina, hargatik, Lurrean aspaldi ahaztuak. Asper-asper eginda, Klotok jolas tentagarrri bat proposatu die ahizpei: lurtar baten bizitzan eragitea.




GAIZKILEEN GALTZADA

GARAZI ALBIZUA

FIKZIO HISTORIKOA

XIV. mendeko *Gaizkileen mugako* gizarteren adierazgarri izan zen botere nahia-
ren ustelkeria sarean oinarrituta dago testua. Pertsonaia bakoitzaren beldurrak, asmoak eta betebeharrak jakitearekin batera, irakurlea murgilduko da giro pozoitsu eta erakargarrian.



MAGALI EZ DAGO BAKARRIK

JOHN ANDUEZA

INTRIGA
THRILLERRA
GAZTE LITERATURA

Egun zailak bizitzan ari dira Bergarako institutuan, egun ilunak, egun korapilatsuak. Nobelaren protagonista nagusiak hamazazpi urteko bi ahizpa dira. Horietako batek jasandako sexu-eraso bortitza eta eraso horren ondorio latzak dira liburuaren ardatz nagusiak.



LUAREN ITZALA

JOHN ANDUEZA

INTRIGA
THRILLERRA
GAZTE LITERATURA


Herriko gazteak suminduta daude Koronabirusaren izurritearen ondorioz ezarritako debeku-sortaren erruz. Urterik ederrenak lapurtu nahi dizkiete. Kokoteraino daudenez, gaupasa klandestinoa antolatuko dute eraikin abandonatuan. Hurrengo goizean haietako bat hilda azalduko da.



BASA MIREN AMUTIZA

**ZAINZAK
ZAHARTZAROA
RURALITATEA**


Adineko emakumea da Sabina, nortasun handikoa, basa. Seme-alabek eta inguru hurbilak bestelako bizimodu batera bultzatu nahi duten arren, bereari eutsi nahi dio kosta ahala kosta. Baserri handi batean bizi da, koinatu ezindua bere zaintzapean duela, lanabesez, animaliaz eta oroitzapenez inguratuta.



IPUIN-ENTZULEA AITOR ARANA

GAZTE LITERATURA


Itziarrek bere bizitzako ametsa betea du: idazlea da eta gazteek gogoko dituzten liburuak argitaratzen ditu. Gazteak ez dira, ordea, irakurtzen dioten bakarrik. Nahikoa izango da Fermin bezalako gizon heldu baten gan piztutako miresmena, idazlearen ametsa amesgaizto bihurtzeko.



HUTSAREN ITZALAK JON ARRETXE

NOBELA BELTZA

Toure igarle-ikertzailearen hirugarren nobela, gordine-na.




612 EURO

JON ARRETXE

NOBELA BELTZA

Toure igarle-ikertzailearen bigarren nobela, umoretsuena



ISILPEKO SEKRETUAK

ARITZA BERGARA

**ELEBERRI BELTZA
PEDERASTIA
MENDEKUA**

Euskal Herriko elizgizonen artean hilketa segida bat aztoratzen ari da gizartea. nor ote da gertaeren arduraduna? Zer dela eta bortizkeria hau guztia? Ertzain bat eta kazetari bat elkarlanean arituko dira argitzeko asmoz




AMETS ITOAK

ARITZA BERGARA

**ELEBERRI BELTZA
MIGRANTEAK
DROGAK**

Bizkaian, Ibaizabalen esker aldean, drogaren izurria itzuli da. Eskualde horretan bertan dugu Bilboko portua, Afrikatik Britainia Handira amets datozen migratzaileek zeharkatu behar duten azken muga.




JENTILAK

ARITZA BERGARA

**EUSKAL MITOLOGIA-
RI BURUZKO
THRILLERRA**

Joseba Etxebarrieta gure herriaren kultura, simenen eta ohituren alorran aditu handienetakoa da. hori dela eta, aita barandiaran isilpean gordetzen saiatu zen idazki baten berri izan bezain laster, bertan ostentzen den kontu iluna argitzeko asmoz eratu den lantaldean sartuko da.




ATARIA

YOLANDA ARRIETA

**FANTASIA
BALIABIDEAK
IDENTITATEA**

Instituto bateko lau gaztek 50 urte barruko beren hirira salto egingo dute. Distopia giroko hirian dagoen utopiazko gotorleku batean agertuko dira, ATÃRIAn, eta bertan arituko dira irautea merezi duten oinarritzko baliabideak lantzen.



GAZTELUONDO

JOKIN DE PEDRO

**ELEBERRI
HISTORIKOA**

Plasentzia (egungo Plentzia), mila bostehun eta seigarren urtean. Gazteluondo hiri errota eraikitzen daudela, Gomiz Gontzaliz Butroeko bertan azaldu da su eta fu, hormen kontra harrika eginez, eraikin berria bere erroten monopolioaren aurka doala-eta.




ZERAK

YOLANDA ARRIETA

**MIKROIPUINAK
POESIA NARRATIBOA**

Nire lagun ezkutua bes-
telakoak dira. Agerian ez
dabiltzalako deitzen diet
ezkutuko, baina haien bulka-
da benetakoa da. Fanta-
siaz izendatu ditut baina
muin organikoa daukate.
Egiazkoak dira. Biziak dira.
Nire lagun ezkutukoak nire
barruko indarrak dira.



IZU-IZUA

JOKIN DE PEDRO

**IZUZKO
NARRAZIOAK**

Misteriozko hiru kontakizu-
nek osatzen dute liburu hau,
hirurak ere suspensearen
eta izuaren artean kokatuak.
Eskuburdinez lotuta, kartze-
latik ihesi doazen bi morroie-
tako bati, onik ateratzeko,
besoa moztea beste erre-
mediorik ez zaio geratuko
lehenengo istorioan.



JOANA

JOKIN DE PEDRO

**HISTORIKOA
AMODIOZKOA**


1970. urtean gaude. Joana
Jauregizar nerabezaro zaila
bizitzen ari da. Lehenengo
kontraesana etxean bertan
du: amaren euskaltzaletasun
epelaren eta aitaren jarrera
frankistaren artean kokatu
behar du bere burua.



HITZEN AHAIREA GOTZON BARANDIARAN

**EUSKARAZKO
KANTAGINTZAREN
ERAGIN SOZIOLOGI-
KO ETA SOZIOUIN-
GUSTIKOA**

Kantagintzaren inguruko gogoetak irakurriko dituzu, baina ez edozelako kantu mota aintzat hartuta. Idazleek idatzitako letrekin sortutako kantuak, literaturak eta musikak eskuz esku sortutako piezak, horiek soilik izango dira liburu honetan aintzat hartuko direnak.



LEHORREKO PATERAK IÑAKI FRIERA

NOBELA

Afrikatik Europara ihes egiten duten migratzaileen bizitzen gogorra gizon eta emakumeen trafikatzaileen eskuetan.



ZUREAK EGIN DU IÑAKI FRIERA

THRILLERRA

Emakume askok pairatzen dituzten tratu txarren inguruko thrillerra. Kazetari batek mezu ezku bat jasoko du, ezagutzen ez duen mundu bortitz batera eramango duena.



MAUSS

JULEN GABIRIA

ELEBERRI GRAFIKOA
(KOMIKIA)

Art Spiegelmanek bere aitaren benetako bizipenak baliatu zituen, historiako komikirik garrantzitsuenetakoa den “Maus” osatzeko. Judu poloniarra izanik, Spiegelmanen aitak sekulako infernua bizi izan zuen nazien garaian, eta hori kontatzen du liburu honek, pertsonen ordeztan animaliak erabiliz.




HAN GOITIK ITSASOA IKUSTEN DA

JULEN GABIRIA

ELEBERRIA

1937ko Gernikako bonbardaketan hasi eta 1943ko Italia faxistan amaituta, injustizien aurrean gutako bakoitzak egin dezakeenari buruzko istorioa da hau. Gino Bartali txirrindulariak 800 judu salbatu zituen faxisten eskuetatik: baina berak bakarrik lortu ote zuen hori?



BIDAIA FILOSOFIKOETAN

ELENA MARTINEZ RUBIO

FILOSOFIA


Gai askotariko saiakera. Lehenengo atalean Hannah Arendten filosofia jorratzen da, 2021ean kurrikuloan sartu zena. Bestalde, Günther Andersen filosofoa, Hannah Arendten lehen senarra izan zena eta haren pentsaeran eragina izan zuena ere aztertzen da bertan, besteak beste.



EGUN GORRIETAN
ELENA MARTINEZ RUBIO

**LITERATURA
HISTORIA
FILOSOFIA**

Gai askotariko saiakera. Historia, literatura, musika eta filosofia..., besteak beste, ikuspegi kritikotik betiere eta bizitzatik gertu. Ikasleei filosofia erakargarri egiteko aukera bat.



**EKOLOGISTA NAIZ
BAINA...**
GORKA EGIA

JASANGARRITASUNA


iburua irakurri orduko, eguneroko bizitzan aukera jasangarriagoak egiteko gida bat da. Bertan hainbat proposamen egingo zaizkizu, zure kontsumo ohiturak aldatzeko. Hitzaldia, liburua bera da, hitzaldi bihurtuta.



**LURTARRA DA
BEGIRATUA**
XABIER ETXABE

**BIZI-ESPERIENTZIA
GERRA ZIBILA**

Jexux Zulaika “Beote” trikitilariaren gorabeherak kontatzen dira, haren biloba baten ikuspegitik. Nobela bi garaien artean saltoka dabil: XXI. mende hasiera, eta XX. mendea. Biloba, Gerra Zibilean hil eta lurperatutako gizon batzuen arrastoen bila ariko da.



ZENDABALITZ

ERIKA ELIZARI

**BARNE-PENTSAMEN-
DUAK**

Parisetik Bilbora doan hegaldi gorabeheratsu baten kronika barruan doazen 7 bidaiariren ahotsek kontatua: lan-elkarrizketa batera joan eta haurdun dagoela ezkutatu duen neska; barruko bulkada suntsikorrei aurre egin behar dien pilotua...

DBH 4



ARTXIPELAGOA

ETXEBERRIAK

**ALDAKETA
KLIMATIKOA
KOMIKIA**

Etorkizun ez oso urrun batean, aldaketa klimatikoak ekarritako hondamendiaren ondoren, Euskal Herri gehiena urpean dago. Ur gainean geratzen den apurra lehengo mendi-tontorrak dira, Artxiipelago moduko bat osatzen dutenak, eta bizimodua ez da erraza, ezta harremanak ere.



AHAZTEN DIREN

gauzak

ARITZ GORROTXATEGI

NARRAZIO-BILDUMA

Narrazio laburrez osatua. Gai sozialak, intimoak, memoriari buruzkoak, beti ere pesimismo irribarretsu batez jorratuak.



SARA

JABI ELORTZA

NOBELA BELTZA

Sarak hamasei urte ditu eta Bilboko ikastetxe batean ikasten du. Neguko igande goiz batean izugarrizko biharamunaz esnatzean, Joseba, bere mutil lagunari adarrak ipini dizkiola gogoratzen du etsituta. Jokinekin enroilatu da, ikastetxeiko frikien taldekoa.




KINITO EGUNAK

JABI ELORTZA

NOBELA BELTZA

1989an, Bilbon, bizi den hamasei urteko mutil bat da Iñaki. Bere ikastetxeiko koadrilan zortzi kide dira eta hiriaren erdialdean kokatuta dagoen apaizen ikastetxe batean ikasten dute. Asteburuetan, ordea, egunerokotasunetik ihes eginda taberna batera joaten dira kinitoan jokatzera.

15



AMUA

ARITZ GORROTXATEGI

POESIA

Poesiari beldurra galtzeko liburu aproposa. Poemak ez dira buruketak, partitura baten modukoak baizik, irekiak eta malguak, eta irakurleak interpretatu behar du bere erara. Gai nagusiak: maitasuna, itsasoa, heriotza, gai sozialak.



IPUIN KONTAKETA

MAITE FRANKO

IPUIN KONTAKETA

Maite Franko (Irun-Hondarribia, 1971), txipiroi-arrantzale eta lehorreko lamia baten zazpigarren alaba da. Antzerkigintza, irakaskuntza, bikoizketa eta literaturaren ur handietan oinak bustitakoa dugu. 2004 urteaz geroztik, ipuin-kontalaritzaren ozeano barean dabil!



KOLDAR HUTSA ZARA

ARITZ GORROTXATEGI

NOBELA

Istorio indibidual eta kolektibo baten fikziozko kronika. Belaunaldi batena, diktaduraren eta trantsizioaren artean jaiotakoarena. Gure kontraesan eta miseria txikien kronika.




JACK DESTRIPTAZAILEAREN ARRASTOA

JOXE MARI ITURRALDE

NOBELA

Patrizio Dagerrezahar mutilak zorte txarra izan du orain arte. Osabak Ameriketatik deitu du berarekin bizitzera joateko, baina Londresera iritsi baino lehen, itsasontzian, dena lapurtu diote. Dirurik gabe, agiririk gabe, Londresen hasi beharko du lan bila.




FESTA ALDAMENEO GELAN

MARIASUN LANDA

ELEBERRIA

Hiri bat: Paris, 1968ko udazkena, oraindik geratzen dira galtzada-harrien pean aurreko maiatzean sumatutako hondartzaren bila saiatzen diren estudianteak. Paris, hainbat espainiar etorkin, iheslari antifrankista eta frankismoko iluntasunetik eta gristasunetik ihesi joandako beste hainbat gazteren harrera-hiri.



ANTZERKIA BIDE

LARRAITZ GARCIA

POZAK
DESILUSIOAK
KEZKAK

Institutoan jasotako gertaerak; kalean lagunekin izan dezaketen elkarrizketa hori; lehen urratsak; norberak bere buruarekin izan ditzazkeen bakarrizketak,... Nerabeen egunerokotasunetik sortutako testu motibagariak eta naturalak.



ESAN GABE DOA

ASEL LUZARRAGA

GIZARTEA ASKEA

Hamar urte dira Sakau herrialdea desagertu eta Askayala sortu zela, herri askeen federazioa. Tentsioa, ordea, ez da aienatu, bizi-bizi baitaigo nazioarteko aliantza baten inbasioaren mehatxua. Ohi denez, balizko gerraren lehen frontea informazioa da, eta asko dago jokoan




GORA TELOIA

AIZPEA GOENAGA

LITERATURA
DRAMATIKOA

Literatura dramatikoak, ikasleengandik gertuen egon daitekeen idazketa literarioa da. Antzerki gida honek ikasleak irakurtzera bultzatzen ditu: bai azalpenak irakurritz, bai adituen aholkuak irakurritz baina batez ere antzerki testuen aukeraketa bat proposatuz.



NI EZ NAIZ TXOTXOLO...!

AIZPEA GOENAGA

ANTZERKIA

Antzerkia irakurtzea beharrezkoa da antzerkia egin ahal izateko. Antzerki idazketa gainera ahozkotasunetik gertuen dagoen literatura da, eta batez ere, irakurketarako zailtasuna duten ikasleentzat gainera literatura oso baliogarria izan daiteke.




LAUTERDI PIRATAREN ALTXORRA

AIZPEA GOENAGA

NOBELA

Abentura liburua. Erraz irakurtzeko modukoa. Neska mutil baten abenturak eta tartean euskal kostaldeko piraten abenturak nahastuko dira.




BALIO ERANTZIA

EKAITZ GOIKOTXEA

**AFORISMOAK
BIZITZA
HERIOTZA
DENBORA**

Balio erantzia hitz egoki eta neurtuekin egia esateko ahalgina da, ezer ez eta festa. Zeharkatzen ditugun eta gaituzten oinarritzko gaiak ditu hausnargai Ekaitz Goikotxearen aforismo liburuak: Bizitza, heriotza, denbora, isiltasuna, hitza, hizkuntza, identitatea...



ANDRAIZEA

IRATI GOIKOTXEA

IPUIN BILDUMA

Mundu paraleloak habitatzen dituzten pertsonen osatua dago, errealitateak une oro egiten du irudimenarekin dantza, talka eta batez ere jolas. Ikusten duguna, ikusi nahiko genukeena, irudikatuzera ausartzen garen horrekin nahasten da etengabe ipuin bakoitzeko puzzlea.




HERRIAK EZ DU BARKATUKO

IRATI GOIKOTXEA

ELEBERRIA


ETak aita hil zion Oihanari duela hogeita bi urte, berak hemeretzi zeuzkala. Zauria bizirik du oraindik, baina ez du horretaz inorekin hitz egiten; bere seme-alabei ere ez die ezer argirik kontatu, nahiz eta barruan sumatu on egingo liekeela denei.



FOTOGRAMAK GOIATZ LABANDIBAR

NARRAZIOAK

Zuri-beltzeko argazkiak oinarri hartuta sortutako narrazio laburrak dira. Argazki horien atzean dauden istorioak kontatzen dira, AEBetan, Hegoafrikan, Parisen, Bartzelonan... kokatuak.



OSTADAR 7310 IÑIGO IBARRA

ZIENTZIA-FIKZIOA

Ostadar 7310 izeneko planetan bizi dira gizakiak. Androideak gizakien laguntzailerak dira. Dena da ederra eta zoragarria, H57 izeneko androide batek protagonistaren bizitza hankaz gora jarriko duen arte. Ezusteen kateak ez du atsedunik, jakin-minak bezalaxe.



NI, VERA ITSASO MARTIN

**BURUKO OSASUNA
ETA HISTORIA**

Martina ez da ondo sentitzen eta psikologoarenera joatea erabaki du. Horrekin batera, bere birramonaren bizitzaren berri izango du eta horrek bere familian eta berarengan izan duen eragina deskubrituko du.



ZAZPI KOLORE

JON ARRETXE

BIDAI LIBURUA

Nire bidaietako istorio berezienak, koloreka, sentimenduka, sailkatuta: tristeak, alaiak, beldurgarriak...



GERRA ZIBILA BERRIATUAN ETA LE- KEITIOKO FRONTEAN

PATXI JUARISTI

HISTORIA: GERRA
ZIBILA

Gerra Zibilean Berriatuan eta, oro har, Lekeitioko frontean gertatu zirenak azaltzen dira.




UBIDE: 1936-1945

PATXI JUARISTI

HISTORIA: GERRA
ZIBILA

Gerra Zibilean Ubide (Bizkaia) frontean gertatu zirenak azaltzen dira.



MARKINAKO FRONTEA

PATXI JUARISTI

**HISTORIA: GERRA
ZIBILA**

Gerra Zibilean Markina-Xe-
meinen eta, oro har, Mar-
kinaldeko frontean gertatu
zirenak azaltzen dira.



ZER DA BA MAITASUNA

MIREN AGUR MEABE

**POESIA ETA
GAZTE LITERATURA**

Nobela bat esan dugu, baina
bi direla ere esan liteke. Izan
ere, bi pertsona eskatzen ditu
maitasunak, bi sentimendu,
bi ikuspegi, bat egin dezake-
tenak... edo ez. Berezi eta
Mister X ditugu protagonis-
tak.


NOBEDADEA
Udazkenean
argitaratuko da

ITZULERAK

MIREN AGUR MEABE

**MARTIJA DE JAU-
REGI EMAGINAREN
BIZITZA
FIKZIONATUA**

Katalinek medikuntza ikasi
nahi du. Familiarekin bate-
ra, Garraitzetara aldatu da
bizitzera, amonarena izan-
dako etxera. Ez du susmatzen
herrian badela "ate" bat den-
boran barrena bidaiatzeko,
eta halaxe agertuko da XVI.
mendean. Nola biziraungo
du gaurko neska batek Aro
Modernoaren hasieran?



HODEIETAN AITZOL LASA

GAZTEENTZAKO
ZIENTZIA NOBELA

Institutuko azken urteetan diren lau gazteren arteko maitasun harremanak abiapuntu hartuta, hodeien formazioa eta fenomeno atmosferikoen zenbait nozio argitzen dira liburuan.



USATEGIAREN PRINTZPIOA AITZOL LASA

GAZTEENTZAKO MA-
TEMATIKA NOBELA

Herrian lapurreta bat gertatu da, eta Argiri egokitu zaio misterioa argitzea. Lapurrak aurkitzeko, ezinbestekoa gertatuko zaio Argiri printzipio matematiko bat erabiltzea: “Usategiaren printzipioa”, edo Dirichtleten printzipioa.



NAFARROAKO MARIS- KALA AITZOL LASA

GAZTEENTZAKO
ZIENTZIA-FIKZIO
NOBELA

Nobela distopiko honetan, Nafarroako Erresuma modernitatean sartu da bere independentzia inoiz galdu izan gabe. Nagusitasun teknologikoaz baliatuz, Nafarroako Mariskal nonahikoak erabateko agintea ezartzen du erresuman.




BEGIAK ZERUMUGAN

MIREN AGUR MEABE

POESIA

Miren Agur Meaberentzat, zerumugari begiratzea abiatzeko bultzada izan daiteke. Ane Pikazarentzat, bere zerumuga amaierarik ez duen mundu onirikoan dago. Biak ala biak aske eta eskutik ibili dira liburu honetan.



ELVIS HIL ZEN URTEAN

XABIER MENDIGUREN

ELEBERRIA

Gauza asko gertatu zen Elvis hil zen urtean. Ametsetan ugari bezain esperientzietan urri zebiltzan Edu, Rober eta Etxe, nobela honetako protagonistak, Elvis hil zen uda hartan, hamabost urte betetzear edo bete berriak zituztela.



ITZALEN DAMA ETA PATXI BAKALLU

URZI LEONET

LITERATURA
FANTASTIKOA

Laino Zuri Handiaren Lurraldean iluntasuna da nagusi; Tawhirimatea zeruetako jainkoa haserre dago, eta laino beltz eta ekaitzekin estali du eguzkia. Herri margotua erabat abailduta dago, baina gure protagonisten etorretarak piztu die itxaropenarenugarra.




NERABEAREN BILUZIA

XABIER MENDIGUREN

AITORKIZUN-
LIBURUA

Euskaraz oso gutxi landu den generoa da oroitzapen liburuarena; Xabier Mendiguren Elizegi ere da bizitza oparo eta luzea gogoratzen hasteko bezain zaharra, baina aitorkizun-liburu bat egin du oraingoan.



SAKONETA

XABIER MENDIGUREN

ELEBERRIA

Ertzain gotorki armatuak, ekologista sutsu solidarioak, kazetari zinikoak edo jakingoseak Denak doaz Sasiondora, han, diotenez, baserritar txoro edo terrorista fanatiko batek tiroka egin baitie aurre agintariei, AHTk desjabeturiko baserria, Sakoneta, husteraz zetozenen.



LURREAN HAZIAK

ASEL LUZARRAGA

KOLONIALISMOA

Iraultza gatibu dago ezezagunen eskuetan, lagun bakarria Sayen maputxe machia duela. Bitartean, Lof Kidu Ngüenewün komunitatean ez dira lo geratzekoak. Zigor ez dago bakarrik, aldi berean du Nahuel bestengusua bere kezketan lagun eta ezinegon berrien iturri.




HERIOTZA ZURIZ jantzita

MIGUEL ANZEL MINTEGI

NOBELA BELTZA
INTRIGA ETA
ABENTURA

Pirinioak. Lau gazte egun batzuk pasatzera joan dira herri txiki batera. Neska brasildar bat sartzen zaie etxean, “klub” batetik ihes eginda. Engainatuta ekarri dute Brasildik, eta ihes egin nahi du. Mafia atzetik du neskak. Gazteek, arriskutsua izanagatik, laguntzea erabakitzen dute.



PANTAILEN GARAIPENA

IÑIGO MARTINEZ PEÑA

PANTAILEN
GENIEGKERIA
AZTERGAI

Botereak erabat garden nahi gaitu, boterea bera sekula garden izango ez den arren kaleak eta lanpostuak bideozaintzaz beteta dauzkagu eta etengabe zelatatzen gaituzte.



MANDAMENTU HIPER- MODERNOAK

IÑIGO MARTINEZ PEÑA

EGUNGO
BIZIMODUA
AZTERGAI

Zerk egiten du gure gizartea den bezalako? Zertan eta zergatik gara aurreko belaunaldietatik desberdinak? Gure aroa bereizten duten ezaugarriak hauteman nahi ditu Iñigo Martínezek, eta, horretarako, inkontzienteki geureganatu ditugun aginduak bilatu eta definitzen ditu.




ITZALEN SUA

FERNANDO MORILLO

GAZTE LITERATURA

Itzalen sua liburua da... Barkatu. Ez da liburua: testuari estu besarkatuak eta haren gainetik dabilten hegan ilustrazio zinematikoa eta interakzio artistikoak, infografia eta musika, estilismoa, makillajea eta antzezpena. Asko batean.




IZAR MALKOAK

FERNANDO MORILLO

GAZTE LITERATURA

Beñat informatika munduan murgildurik dabilen gaztea da, hacker izateko bidean ondo kokatua. Bi neska ibiliko zaizkio inguruan: bata jatorragoa, dudarik gabe; bestea misteriotsuagoa eta erakargarriagoa, bizimodu ilunekoa eta asmo ezkutukoa.



FREEPORT

ANDER ODRIOZOLA

NOBELA BELTZA

Detektibe koxkor bat da Joanes, adar eta gona kontu ziztrinekin nola-hala moldatzen dena bizirik irauteko. Halako batean, ordea, Ondarroako portura argazki konprometigarri batzuk saltzera joan, eta tiro batez hilik topatzen du bere bezeroa.



FESTA

JASONE OSORO

**SEXUA ETA
HAURDUN GERATZEN
DEN NERABEA**

Andrea eta Sofia lagun minak dira eta pozarren daude udako festara gonbidatu dituztelako Elorza anaiek. Lorategia eta igerilekua duen etxebizitza ederrean ondo baino hobeto pasako dute, baina handik egun batzuetara Sofia haurdun dagoela ohartuko da.



PRINTZAK BEGIETAN

IRATXE ORMATZA

**XX. MENDEKO
EMAKUME
EUSKALDUNEN
BIZIPENAK**

Mende bete andre. Handiak izan dira aldaketak XX. mendean: lan bila jendearen etorrera, zinema, langileen ugaritzea, iraultza asmoak eta ametsak, gerra eta gerraoste luzea, txabolak, iraultza-ametsak berriro itzartzea...




AMALUR

IXABEL MILLET

EUSKAL MITOLOGIA

Amalur mito hau kontatuko dut eta liburuaren aurkezpena, nola sortu zen eta kaminshibai formatoaz hitz egingo dut ikasleekin. Euskal mitologia inguruan dudan eza-gutza partekatzea gustokoa dut galderei erantzuten.




ELURRA ELURRAREN GAINEAN

CASTILLO SUAREZ

POESIA / NATURA /
MAITASUNA

14 poemez osatutako liburua ilustratua da. Bereziak dira poemak pertsona esanguratsuei eskainiak diren aldetik, edo Euskal Herrian sinbologia handiko ekitaldietan plazaratuak izan direlako. Edizioa luxuzkoa da, azal gogorrekoa; eta, poema guztiak ilustratu dituzte Txakur Gorria kolektibokoek.



ALASKA

CASTILLO SUAREZ

POESIA / TOKIEN
DOLUA / NATURA

Alaska garai batean Altzasun egon zen hotel handi eta elegante bat izan zen, bidaiariz eta turistaz betea egoten zena, gaur egun abandonatuta dagoena. Maiz idatzi da desamodioaz eta abandonuaz, baina gutxiago tokiekin lotzen gaituzten hari ikusezinez.




GALDU ARTE

JUAN LUIS ZABALA

80EKO HAMARKA-
DAKO
GAZTETXEETAKO
GIROA

Mutil gazte baten bilakaera ikusten da, gaztetxearen okupazio garaitik hasita jonki bihurtzen den arte, eta baita geroagoko kontuak ere.



AGUR, EUZKADI

JUAN LUIS ZABALA

ABERTZALETASUNA

Lauaxeta poeta abertzalea berpiztuta agertzen da Gernikan 1997an, eta XX. mendaren amaierako munduarekin egiten du topo, Euskaldunon Egunkariako kazetari bat gidari duela.




OSPA

JUAN LUIS ZABALA

**ERA ASKOTAKO
KONTAKETAK**

Ipuin guztietan protagonista nagusia, aldez edo moldez, ihesi ageri da, edo, bestela, ihes egin nahian.



ZERRIA

PATXI ZUBIZARRETA

GAZTE LITERATURA

Alpeetako gailurretan jaso du Bereketek Gasparden albisteak: «Gorpu batzuk deskubritu ditud, bi gutxienez, Tsanfleuron glaziarrean». Albisteak gazte glaziologoa astindu eta asaldatu du, eta ez du onik izan historiaren jatorria eta egia lazgarria ezagutu arte, hortxe, Pirinioen bihotzean.



BAINA EZ LUKETE HAN EGON BEHAR

ASIER OSINALDE

GAZTE LITERATURA

Bakarrik jaio eta bakarrik hiltzen gara. Bitartean, hari ikusezin baten gainean orekari eusten saiatzen gara eta argazkiak ateratzen dizkigute. Gu argazkitakoak izaten saiatzen gara, baina ez gara.



ERANTZUNA HAIZEAN DABIL

PATXI ZUBIZARRETA

GAZTE LITERATURA

1987. urtea da: Sobietar Batasunak Soyuz espaziontzia orbitan jarri du; Salt Lake Cityn Theodore Kaczynskik –Unabomber– bonba bat jarri du; Ingalaterran Margaret Thatcherrek bere hirugarren eta azken agintaldia eskuratu du.



ATLAS SENTIMENTALA

PATXI ZUBIZARRETA

GAZTE LITERATURA


Martinen ama ez dago ongi, eta hura apur bat suspertu eta indarberritu dadin, bidaia bat antolatu diote Marokoko Atlas mendikatera. Baina Martinek han orkatila bihurtu, eta gurasoek Toubkal mendi aldera jarraitu duten bitartean, bera herrixka batean geratu da.



TRIPOLI KABUL KARLOS ZURUTUZA

GAZTE LITERATURA


Urtetako txangoa izan da Tripoli eta Kabul artekoa. Bidean, gerrak, goseteak eta injustiziak etxetik kanporatutakoekin egin dut topo. Erraza da Donostiatik Kabulera joatea, Tripoli zeharkatuta bada ere, baina ez alderantziz.



EKIALDE HURBILA, MUNAK ETA ERTZAK KARLOS ZURUTUZA

GAZTE LITERATURA


Ekialde hurbila, muinak eta ertzak, Mikel Ayestaran, Ane Irazabal eta Karlos Zurutuza: 2011n, itxaropena lehertu egin zen herrialde arabiarretan, askatasun politikoaren eta justizia sozialaren ize-
nean, plazaz plaza zabaldu zen iraultza, mugak zeharkatuz.



110 STREET-EKO GELTOKIA IÑAKI ZABAETA

NEW YORK. EUSKAL
ERREFUXIATUA.
MAITASUNA

Euskal iheslari/errefuxiatu bat New York bizi da, dokumentu legalik gabe. Abentura, amodioa, hiri erraldoietako bakardadea, sexu jazarpena, laguntasuna eta solidaritatea...bertan daude.



**MUNDUARI BIRA EMAN
ZION ONTZIA**

JOSEBA SARRIONANDIA

GAZTE LITERATURA

«Benetako historia bat» kontatzeko eskatu dio neskato batek bere amonari, benetako historia bat behingoz, ipuin umekoiak kontatzen dizkiolako beti amonak, Historia irakaslea izan arren.




**LITERATURATIK
MUSIKARA**

ASIER SERRANO

**LITERATURA ETA
MUSIKA**

“Literaturatik musikara” saio musikatua eskaintzen dut. Saioa hiru zatitan banatuta dago.




ARRAKASTA

JASONE OSORO

**ZER DA
ARRAKASTA?**

Joxemari Agirretxe Porrotx, Eneko Atxa, Izaro Andrés, Harkaitz Cano, Eva Domingo, Maider Egues, Jon Garaño, Aizpea Goenaga, Markel Irizar, Itziar Ituño eta Gorka Urbizu. Disziplina ezberdinetako 11 laguni egindako elkarrizketetatik abiatuz, saiakera honek arrakastari buruzko hausnarketa egiten laguntzen du.



KANKALEKO MISTERIOA

JOHN ANDUEZA

**INTRIGA
THRILLERRA
GAZTE LITERATURA**

Kankaleko herrian oporrak pasatzen ari diren haur batzuek, gizon ezezagun baten gorpua aurkituko dute hondartzan. Nork erahil ote du? Zergatik? Ze puntutara-ino aldatuko du hilketa tamalgarri horrek protagonista gazteen bizimodua?

HATSAREN POESIA Olerki Bilduma 2022




HATSAREN POESIA

AINARA MAYA

**OLERKIAK ETA POESIA
TAILERRAK**

Askok idazten dute bertan, eta orotariko poesia aurki daiteke, baita haurrena ere, edota poeta gazteen poemak ere. Euskal Herri osoko nahiz diasporako 125 poeta.



BERRIZ ERE HUTSETIK HASTEA

MIGUEL ANGEL MINTEGI

**MAITASUNA ETA
GENERO-
INDARKERIA**

Idoia mutil zoragarri bat ezagutu du. Itxuraz ez du ezer faltan: adeitsua da, ederra, ikasle ona... Baina laster topo egingo du errealitatearekin, eta hasieran harremanetan argi-ilunak direnak, ilunak bilakatuko dira denborarekin.



KROKODILOA OHE AZPIAN MARIASUN LANDA

GAZTE LITERATURA

Tipo arrunta da ipuin hone-
tako protagonista. Arrunta
du etxea, arrunta lanbidea,
arrunta izena bera ere: J.J.
Baina halako batean, gaur,
ohetik jaiki, eta batere arrun-
ta ez den zerbait gertatu zaio:
krokodilo bat ikusi du bere
ohe arruntaren azpian.